

**REGLEMENT 2023/2024**  
**BOURSE « EUSKARAZ LAN EGIN / TRAVAILLER EN BASQUE »**  
**2023/2024 ARAUDIA**  
**«EUSKARAZ LAN EGIN/TRAVAILLER EN BASQUE» DIRULAGUNTZA**

Le dispositif « Euskaraz lan egin / Travailler en basque » est une aide financière individuelle destinée aux personnes souhaitant se former de manière intensive à la langue basque afin de devenir enseignant en langue basque dans l'enseignement primaire ou secondaire public ou privé, ainsi qu'aux personnes ayant un projet professionnel nécessitant la maîtrise de la langue basque dans les secteurs identifiés comme prioritaires dans le Projet stratégique de l'OPLB.

### Article 1. Objectifs

- Accroître le nombre de candidats aux concours du CRPE public et privé spéciaux langue basque,
- Accroître le nombre d'enseignants en langue basque dans l'enseignement public, privé confessionnel et privé associatif du 1<sup>er</sup> degré,
- Accroître le nombre d'enseignants de disciplines non linguistiques en mesure d'enseigner leur discipline en langue basque dans l'enseignement public secondaire,
- Répondre au besoin en matière de professionnels bascophones dans les secteurs identifiés comme prioritaires par le Projet stratégique de l'OPLB.

### Article 2. Bénéficiaires

- Enseignants titulaires de la fonction publique désirant enseigner en langue basque dans les sections bilingues des 1<sup>er</sup> et 2<sup>nd</sup> degrés,
- Personnes désirant se présenter aux CRPE spéciaux langue basque, publics ou privés, internes ou externes,
- Personnes non salariées ou bénéficiant d'un congé pour convenance personnelle et ayant un projet professionnel en langue basque et un diplôme validé ou une expérience significative valorisable en lien avec son projet pour lequel la compétence langue basque est nécessaire. Le projet professionnel présenté doit se situer sur le territoire du Pays Basque nord.

«Euskaraz lan egin/Travailler en basque» dispositiboa, 1. edo 2. mailako irakaskuntza publikoan edo pribatuan euskarazko irakasle bilakatzeko xedearekin, baita EEPko proiektu estrategikoan lehentasun gisa finkatuak diren alorretan, euskara gaitasuna beharrezkoa duen proiektu profesionala betetzeko xedearekin ere, euskara ikastaro trinko bat segitu nahi duten pertsoneri zuzendua zaien dirulaguntza da.

### 1. artikulua. Helburuak

- 1. mailako euskarazko lehiaketa publikoan eta pribatukoan aurkezten diren hautagaien kopurua emendatzea,
- 1. mailako irakaskuntza publikoan, girstinokoan eta elkarte pribatukoan euskaraz irakasten duten irakasleen kopurua emendatzea,
- 2. mailako irakaskuntza publikoan hizkuntzak ez diren ikasgaiak (HEDI) euskaraz irakasteko gai diren irakasleen kopurua emendatzea,
- EEPko proiektu estrategikoan lehentasun gisa ekarriak diren sektoreak profesional euskaldunetz hornitzeko beharrari erantzutea.

### 2. artikulua. Onuradunak

- 1. eta 2. mailako sail elebidunetan euskaraz irakatsi nahi duten irakaskuntza publikoko irakasle tituludunak,
- Kanpoko edo barneko, publikoko edo pribatuko, EIK euskarazko lehiaketan beren burua aurkezteko xedea duten pertsonak,
- Soldatadun ez diren edo arrazoi pertsonalengatik geldialdian diren pertsoneri, euskararekin lotua den proiektu profesionala eta diploma egiazkotua edo euskara gaitasuna baitezpadakoa den esperientzia adierazgarria dutenak. Proiektu profesionalak Ipar Euskal Herrian izan behar du.

### **Article 3. Conditions de participation au dispositif « Euskaraz lan egin / Travailler en basque »**

#### **3.1. Conditions générales**

Les bénéficiaires devront respecter les engagements détaillés au point 7 du présent règlement.

Les bénéficiaires devront résider en France.

#### **3.2. Conditions particulières**

##### **Pour les projets professionnels dans le domaine de l'enseignement :**

- Pour les personnels enseignants de la fonction publique :
  - être professeur des écoles titulaire du 1<sup>er</sup> degré public dans le département des Pyrénées-Atlantiques, en disponibilité pour convenance personnelle durant le temps de la formation,
  - être professeur titulaire du 2<sup>nd</sup> degré public, en disponibilité pour convenance personnelle durant le temps de la formation, et enseigner une des matières suivantes en collège ou lycée (enseignement général) : Mathématiques, Histoire-Géographie, Sciences-Physiques, Sciences et Vie de la Terre, Éducation musicale, Arts Plastiques, EPS, Technologie.
- Pour les personnes non titulaires d'un concours d'enseignement :
  - remplir les conditions générales d'inscription au CRPE ou CAPES externe ou interne,
  - être titulaire au minimum d'un master 1 ou d'un titre ou diplôme reconnu comme équivalent par le ministère de l'Éducation nationale, ou être titulaire d'une licence et se destiner à un master 1 « MEEF basque ».

##### **Pour les projets professionnels dans d'autres domaines identifiés comme prioritaires par le Projet stratégique de l'OPLB :**

- avoir un projet professionnel nécessitant l'usage de la langue basque en lien avec le Projet stratégique de l'OPLB, sur le territoire du Pays Basque nord,
- être titulaire d'un diplôme ou justifier d'une expérience significative et valorisable en lien avec le projet professionnel,
- démontrer la pertinence du projet de formation à la langue basque au regard du projet professionnel.

##### **Il est exclu d'attribuer la bourse « Euskaraz lan egin / Travailler en basque » aux personnes :**

- dont la demande de Congé de Formation Professionnelle (CFP) est accordée par leur employeur pour la durée de la formation

### **3. artikulua. «Euskaraz lan egin/Travailler en basque» dispositiboan parte hartzeko baldintzak**

#### **3.1. Baldintza orokorrak**

Onuradunek, araudi honen 7. artikuluan zehaztuak diren engaiamenduak bete beharko dituzte.

Onuradunak frantziako lurraldean bizi beharko dira.

#### **3.2 Baldintza bereziak**

##### **Irakaskuntzaren eremuko proiektu profesionalentzako:**

- Funtzio publikoko irakasleentzat:
  - publikoko 1. mailako irakasle tituluduna izatea, eta formakuntza jarraitzen duen denboran egokitasun pertsonalagatik disponibilitatean izatea,
  - publikoko 2. mailako irakasle tituluduna izatea eta formakuntza denboran edo arrazoi pertsonalengatik geldialdian izatea. Gainera, honako ikasgaietako bat irakatsi beharko dute, irakaskuntza orokorreko kolegio edo lizeo batean: Matematikak, Historia-Geografia, Fisika eta Kimika, Lur eta Bizi Zientziak, Musika, Arte Plastikoak, Gorputz eta Kirol Heziketa, Teknologia.
- Irakasle konkurtsoa ez dutenentzat:
  - kanpoko edo barneko EIKLn edo CAPESan izena emateko baldintza orokorrak betetzea, gutienez, Hezkunde Nazionalako ministerioak onartzen duen master 1 edo hein bereko titulu edo diploma bat izatea, edo Lizentziaduna izan eta Euskarazko MEEF Master bat egiteko xedea izan.

##### **EEPko Proiektu estrategikoan lehentasun gisa ekarriak diren beste alorretako proiektu profesionalentzako:**

- EEPren Proiektu estrategikoarekin lotua dena eta Ipar Euskal Herrian kokatzen dena proiektu profesionala izatea,
- proiektu profesionalarekin lotura duen diploma ukaitea edo lan-esperientzia adierazgarri eta baliogarriaren froga erakustea
- proiektu profesionala gauzatzeko, euskara ikasteko formakuntza egokia dela erakustea.

##### **Ezin zaie «Euskaraz lan egin/Travailler en basque» dirulaguntza ondoko pertsonen eskaini:**

- formakuntza denborarentzat, enpleagatzaileak Formakuntza Profesionaleko Geldialdia (FPG) onartu dietenei edo Trantsizio Profesionaleko Oporraldian direnei

- concernée ou bénéficiaires d'un congé de Transition Professionnelle,
- en congé parental rémunéré,
- bénéficiaires d'une pension civile ou militaire de retraite.

#### **Article 4. Formations éligibles**

Les bénéficiaires de la bourse devront être inscrits à une formation intensive en langue basque respectant l'ensemble des critères suivants :

- objectif : acquisition en langue basque du niveau C1 du CECRL (le niveau à atteindre pourra, le cas échéant, être adapté en fonction des spécificités des différents secteurs),
- intensité : 30 heures hebdomadaire minimum,
- durée : de 120 heures minimum à 1.500 heures maximum, en fonction du niveau initial des candidats,
- période : formations comprises entre le 1er septembre 2023 et le 31 août 2024. Les formations engagées en 2023 avant le 1er septembre 2023 pourront être prises en compte sous réserve de fournir les justificatifs de suivi correspondants,
- lieu : territoires du Pays Basque nord et de la Communauté autonome d'Euskadi dans un centre agréé par le Gouvernement de la CAE (liste des centres agréés auprès des services de l'OPLB).

#### **Article 5. Montant de la bourse**

Le montant de la bourse est fixé à 5 € par heure de formation suivie dans la Communauté autonome d'Euskadi ou dans la Communauté forale de Navarre dans un centre agréé par le Gouvernement de la CAE ou de la Navarre, et à 7 € par heure de formation suivie dans un centre de formation se trouvant sur le territoire de la Communauté d'Agglomération Pays Basque.

Le montant global de la bourse sera calculé au regard du niveau initial du candidat et du nombre d'heures nécessaires pour l'atteinte du niveau C1 du CECRL.

Le montant versé ne pourra être supérieur au coût global de la formation diminué du montant pris en charge par les financements mobilisés par ailleurs.

#### **Article 6. Modalités de versement**

Le paiement de l'aide se fera mensuellement, au prorata des heures de formation réellement suivies. Le versement ne sera effectué qu'après présentation des attestations de présence fournies par le centre de formation. Ces attestations devront préciser le nombre d'heures suivies.

- gurasotasun geldialdi ordainduan direnei,
- erretreta pentsio zibil edo militarra eskuratzen dutenei.

#### **4. artikulua. Formakuntza hautagarriak**

Dirulaguntzaren onuradunek, honako baldintzak betetzen dituen euskara formakuntza trinko batean izena emana izan beharko dute:

- helburua: EEMBko (hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratua) C1 maila lortzea euskaraz, halabeharrez, lortu beharreko heina, alor bakoitzeko berezitasunen egokituko zaie,
- erritmoa: gutienez 30 ordu astean,
- iraupena: gutienez 120 ordutik gehienez 1500 ordura, ikasleen hasierako mailaren arabera,
- epea: 2023ko formakuntzak, 2023ko irailaren 1etik 2024ko abuztuaren 31a artean iraganen dira. Formakuntzak 2023ko irailaren 1a baino lehen hasi dituztenek jarraipen frogagiriak aurkeztu beharko dituzte formakuntzak kontuan hartuak izateko,
- lekua: Ipar Euskal Herrian edo Euskal Autonomia Erkidegoan, Eusko Jaurlaritzak homologatu euskaltegi batean. (euskaltegi homologatuen zerrenda EEPn eskuragarri).

#### **5. artikulua. Dirulaguntzaren zenbatekoa**

Dirulaguntzaren zenbatekoa 5 €-koa da, formakuntza oren bakoitzeko, Euskal Autonomia Erkidegoan edo Nafarroko Erkidegoan, Eusko Jaurlaritzak edo Nafarroko Gobernuak homologatu euskaltegi batean egin formakuntzarentzat eta 7 € oren bakoitzeko, Euskal Elkargoko lurraldean egindako formakuntza batentzat.

Dirulaguntzaren zenbateko orokorra, hautagaiaren abiatze mailaren arabera kalkulatu da, eta EEMBko C1 maila lortzeko beharko diren oren kopuruaren arabera.

Kanpoko dirulaguntzak kontuan hartu ondoren, ordaintzekoa ez da formakuntza-prezioa baino handiagoa izaten ahalko.

#### **6. artikulua. Ordaintzeko moldeak**

Dirulaguntza hilabetero ordainduko da, ikasleak hartu dituen formakuntza oren kopuruaren arabera. Horretarako, euskaltegiak presentzia agiriak helarazi beharko ditu, ordaintzeta egin ahal izateko. Agirietan, formakuntza oren kopurua agertu beharko da.

Remarque : un candidat non retenu au dispositif qui aurait débuté une formation avant la décision du jury de recrutement ne pourra prétendre au versement d'une bourse pour les heures de formation effectivement réalisées.

## Article 7. Engagements des bénéficiaires

Les engagements seront formalisés dans un contrat d'engagement qui devra être signé par le candidat pour que la bourse puisse être versée.

### 7.1. Engagements communs à tous les bénéficiaires

En contrepartie de l'attribution de la bourse, le bénéficiaire s'engage à :

- suivre intégralement la formation et à fournir mensuellement avant le 8 de chaque mois à l'OPLB une attestation d'assiduité remise par l'organisme de formation,
- à l'issue de la formation, se présenter à la première session de l'examen de certification EGA mis en oeuvre par l'OPLB en partenariat avec l'UPPA et l'Université de Bordeaux Montaigne. En cas d'échec se présenter à la session suivante,
- rembourser à l'OPLB le montant des bourses versées en cas de non-respect d'un ou plusieurs des engagements ci-dessus, en dehors des cas de force majeure.

### 7.2. Engagements particuliers

#### Pour les projets professionnels dans le domaine de l'enseignement :

- Les enseignants du 1<sup>er</sup> degré s'engagent à :
  - ne postuler, lors du mouvement des enseignants, que sur des postes d'enseignant bilingue français/basque pendant au moins 10 ans,
  - rembourser à l'OPLB le montant des bourses versées en cas de non-respect d'un des engagements ci-dessus, en dehors des cas de force majeure.
- Les enseignants du 2<sup>nd</sup> degré s'engagent à :
  - effectuer les démarches nécessaires pour être affecté sur un poste de DNL en langue basque dans un établissement (collège ou lycée) disposant d'une offre d'enseignement bilingue français-basque (mouvement inter-académique, mouvement intra-académique,...),
  - tenir informé l'OPLB des démarches entreprises,
  - enseigner leur discipline en langue basque dès que la possibilité leur en sera donnée et pendant au moins 10 ans,
  - rembourser à l'OPLB le montant des bourses versées en cas de non-respect d'un des

Oharra: Hautagai batek, epaimahaiaren erabakia aitzin formakuntza bat hasten badu eta azkenean dispositiboan parte hartzeko aukeratua ez bada, ezin izango du oren horien ordainketa eskatu.

## 7. artikulua. Onuradunen engaiamenduak

Engaiamenduak engaiamendu kontratu batean formalizatuak izanen dira, eta hautagaiak izenpetu beharko ditu, beka ordaindu ahal izateko.

### 7.1 Onuradun guzietan bete beharko dituzten engaiamenduak

Dirulaguntzaren ordainez, onuraduna engaiatzen da:

- formakuntza osoki segitzera eta euskaltegiak eman jarraitutasun agiria hilabete guzietan, 8a aitzin, EEPra helaraztea,
- formakuntza bukatzean, EEPk PAHU eta Bordeleko Montaigne Unibertsitatearekin partaidetzan obratzen duen EGA azterketaren lehen saiora aurkeztera. Huts eginez gero, hurrengo saiora aurkeztera,
- lehenago aipatu engaiamendu bat edo gehiago ez badituzte errespetatzen, EEPk isuri beka itzultzera, ezinbesteko kasuetan izan ezik.

### 7.2. artikulua. Engaiamendu bereziak

#### Irakaskuntzaren eremuko proiektu profesionalentzako:

- 1. mailako irakasleek honako engaiamenduak bete beharko dituzte:
  - irakasleen mugimendu denboran, 10 urtez bederen, soilik euskara/frantsesa irakasle elebidun postuetara aurkeztea,
  - lehenago aipatu engaiamendu bat ez balitz betetzen, EEPk isuri dirulaguntzak itzultzera engaiatzea, ezinbesteko kasuetan izan ezik.
- 2. mailako irakasleek honako engaiamendu hauek bete beharko dituzte:
  - irakaskuntza elebiduna eskaintzen duen ikastetxe bateko (kolegio, lizeo) euskarazko HEDI irakasle lanpostu bat lortzeko beharrezkoak diren urratsak ematea (akademien arteko mugimendua, akademia barneko mugimendua,...),
  - abiatu urratsen berri ematea EEPri,
  - aukera emanen zaielarrik, gutienez 10 urtez beren ikasgaia euskaraz irakastea,
  - lehenago aipatu engaiamendu bat ez bada betetzen, EEPk isuri dirulaguntzak itzultzea, ezinbesteko kasuetan izan ezik.
- Irakasle ez direnek honako engaiamendu hauek bete beharko dituzte:

engagements ci-dessus, en dehors des cas de force majeure.

- Les personnes non enseignantes s'engagent à :
  - s'inscrire et se présenter dès lors qu'ils y sont éligibles au CRPE spécial basque (interne ou externe) et, en cas d'échec, à la session suivante,
  - fournir une attestation de présence aux épreuves écrites et orales (en cas d'admissibilité) du CRPE externe spécial basque. Ces attestations seront remises le jour du concours par le centre d'examen,
  - rembourser à l'OPLB le montant des bourses versées en cas de non-respect d'un des engagements ci-dessus, en dehors des cas de force majeure.

### **Pour les projets professionnels dans d'autres domaines identifiés comme prioritaires par le projet stratégique de l'OPLB :**

- Les personnes s'engagent à :
  - effectuer des recherches d'emploi en lien avec la formation suivie et le projet professionnel présenté au jury d'attribution des bourses,
  - tenir l'OPLB informé de ces démarches durant l'année suivant la fin de la formation,
  - rembourser à l'OPLB le montant des bourses versées en cas de non-respect d'un des engagements ci-dessus, en dehors des cas de force majeure.

## **Article 8. Modalités de candidature**

### **8.1. Constitution du dossier de candidature**

Les candidats souhaitant postuler au dispositif « Euskaraz lan egin / Travailler en basque » devront remplir un dossier de candidature accessible en ligne sur le site de l'OPLB.

### **Pour tous les candidats, le dossier de candidature devra contenir :**

- un plan de formation précis (calendrier individualisé, coûts, niveau ciblé) établi par l'organisme de formation choisi,
- la fiche de renseignements complétée,
- un curriculum vitae,
- une attestation du niveau de langue basque, initial, fournie par l'organisme de formation choisi par le candidat (les coûts relatifs au positionnement linguistique seront remboursés par l'OPLB, sur demande des candidats et présentation d'un justificatif),
- un RIB,
- si nécessaire, tout justificatif permettant l'examen et la prise en compte d'une situation particulière.

### **Pour les projets professionnels dans le domaine de l'enseignement :**

- euskarazko (kanpoko edo barneko) EIKL publikoan izena ematea eta aurkeztea, egiteko aukera izan orduko, eta lortzen ez badute, ondotik datorren saiora aurkeztea,
- euskarazko kanpoko EIKL-eko publikoko idatzizko eta ahozko azterketen (idatzia lortzen badute) presentzia agiria EEPri helaraztea. Azterketa zentroak azterketa egunean banatuko ditu agiriak,
- lehenago aipatu engaiamendu bat ez bada betetzen, EEPk isuri dirulaguntzak itzultzea, ezinbesteko kasuetan izan ezik.

### **EEPKo proiektu estrategikoan lehentasun gisa ekarriak diren beste alorretako proiektu profesionalentzako:**

- Pertsonak honako engaiamendu hauek bete beharko dituzte:
  - beka eskatzeko egin elkarrizketan aurkeztu bezala eta segitu formakuntzarekin lotura duten lan bilaketak egitea,
  - formakuntza bukatu ondorengo urtean egin urratsen berri ematea EEPri,
  - lehenago aipatu engaiamendu bat ez bada betetzen, EEPk isuri dirulaguntzak itzultzea, ezinbesteko kasuetan izan ezik.

## **8. artikulua. Izen emate moldeak**

### **8.1 Izen emate dosierra**

«Euskaraz lan egin/Travailler en basque» dispositiboan izena eman nahi dutenek, EEPren webgunean aurkitzen den aurkezpen dosierra bete beharko dute.

### **Hautagaien aurkezpen dossierretan honako dokumentuak aurkitu beharko dira:**

- formakuntza plan zehatz bat (personalizatutako egutegia, kostua, xedetzat hartu euskara maila) hautatu formakuntza erakundeak emanik,
- argibide-fitxa ongi beteak,
- curriculum vitaeak,
- hasierako euskara maila baieztagiria. Hau, hautagaiak hautatu duen formakuntza zentroak egin beharko dio (EEPK, mailakatze agiriaren kostua ordainduko du, hautagaiak hala eskatzen badu eta egiaztagiri bat erakutsiz geroz),
- BNA (Bankuko Nortasun Agiria),
- behar izanez gero, egoera berezi bat kontuan hartzeko behar den frogagiria.

### **Irakaskuntzaren eremuko proiektu profesionalentzako:**

- Pour les enseignants du 1<sup>er</sup> degré exerçant dans du département des Pyrénées-Atlantiques, ainsi que les enseignants du 2<sup>nd</sup> degré, le dossier de candidature devra également contenir :
  - la copie du diplôme d'enseignant (CRPE, CAPES, CAPEPS, agrégation),
  - l'arrêté de mise en disponibilité pour convenance personnelle.
- Pour les personnes non enseignantes, le dossier de candidature devra également contenir :
  - une copie du diplôme le plus élevé obtenu en lien avec le projet professionnel et/ou la justification de l'expérience professionnelle en lien avec ce projet.

**Pour les projets professionnels dans d'autres domaines identifiés comme prioritaires par le projet stratégique de l'OPLB :**

- Le dossier de candidature devra également contenir :
  - une lettre de motivation présentant le projet professionnel en langue basque et démontrant la pertinence de la formation au regard de celui-ci,
  - le cas échéant, les pièces justificatives prouvant que le candidat a sollicité des aides financières de droit commun pour le financement de cette formation et s'est vu notifier un refus (courrier, notification).

**8.2 Date limite de retour des dossiers**

Les dossiers complétés seront retournés par courrier postal, accompagnés de tous les justificatifs pour le **16 juin 2023 au plus tard**, à l'adresse suivante :

Office Public de la Langue Basque – Euskararen Erakunde Publikoa  
2, allée des Platanes – Platanoen hiribidea, 2  
64100 BAYONNE – BAIONA

Les dossiers non complets ne seront pas examinés.

Dans le cas où l'enveloppe votée pour le présent dispositif ne serait pas consommée dans sa totalité à l'issue de ce premier appel à candidature, d'autres appels à candidature pourront être organisés sur l'année 2023 jusqu'à épuisement de l'enveloppe.

**Article 9. Procédure de sélection des candidats**

L'enveloppe globale prévue pour le financement des bourses est de 110.000 €. Le nombre prévisionnel de bourses attribuées est estimé à 15.

Les candidats seront sélectionnés sur dossier par une commission composée des représentants de l'Office public de la langue basque et, le cas échéant, de l'Inspection académique des Pyrénées-Atlantiques.

- Pirinio Atlantikoetako departamenduko 1. mailako irakasleek, bai eta bigarren mailako irakasleek ere, dossierrean ezarri beharko dituzte:
  - irakasle diplomaren kopia (EIKL, CAPES, CAPEPS, agregazioa),
  - arrazoi pertsonalengatik geldialdian ezartzeko erabakia.
- Irakasle ez direnek, dossierrean ezarri beharko dute:
  - proiektu profesionalarekin loturik, ukan duten diploma gorenaren kopia eta/edo proiektuarekin lotu esperientzia profesionala.

**EEPko proiektu estrategikoan lehentasun gisa ekarriak diren beste alorretako Proiektu profesionalentzako**

- Hautagaitza dossierrean ezarri beharko dituzte:
  - euskarazko proiektua aurkezten duen motibazio gutun bat, xede hori kontuan hartuz formakuntza egitea egokia dela erakusten duena,
  - beharrez, hautagaiak, formakuntza hau ordaintzeko zuzenbide arrunteko dirulaguntzak galdegin dituela eta erantzun ezezkorra ukan duela frogatzen duten agiriak (gutuna, jakinarazpena).

**8.2 Dosierrak aurkezteko epemuga**

Dosier osatuak postaz igorri beharko dira, egiaztagiri guziak barne, **berantenez 2023ko ekainaren 16rako**, honako helbidera:

Osoak ez diren dosierrak ez dira aztertuko.

Lehen deialdiaren ondotik, dispositibo honentzat bozkatu diru kopurua ez bada osoki gastatzen, beste deialdiak antolatzen ahalko dira 2023an, aurreikusitako dirua xahutu arte.

**9. artikulua. Kandidatuen hautatzeko prozedura**

Beka ordaintzeko 110.000 €-ko diru-kopurua aurreikusia da. EEPk 15 beka esleituko dituela aurreikusten da.

Euskararen Erakunde Publikoko eta, halaber, Pirinio-Atlantikoetako akademia ikuskaritzako ordezkariak osatu batzordeak dosierrak aztertuko ditu eta kandidatuak hautatuko.

Les dossiers de candidature doivent permettre à la commission d'évaluer les dossiers au regard des critères suivants :

- niveau initial en langue basque,
- projet professionnel clair et précis en vue de l'enseignement de et en langue basque ou en vue de travailler dans un secteur identifié comme prioritaire par le Projet stratégique de l'OPLB.

Concernant les personnes se destinant à l'enseignement dans le 2<sup>nd</sup> degré, priorité sera donnée aux candidats exerçant déjà au sein de l'Académie de Bordeaux.

Pour les personnes non enseignantes se destinant à l'enseignement, priorité sera donnée à celles ayant déjà passé le concours du CRPE ou ayant validé la 1<sup>ère</sup> année du master MEEF 1<sup>er</sup> degré.

Concernant les personnes ayant un autre projet professionnel, priorité sera donnée à celles dont le projet répond directement aux enjeux identifiés par le Projet stratégique de l'OPLB.

Après instruction des dossiers, les candidats retenus seront convoqués à un entretien et auditionnés afin d'évaluer leurs motivations.

Pour les candidats non enseignants se destinant à l'enseignement, le jury portera une attention particulière au niveau de langue (en français et en basque), à leur intérêt pour le métier d'enseignant, à leur(s) expérience(s) éventuelle(s) dans l'un des métiers de l'enseignement.

Après sélection des candidats, l'OPLB informera individuellement de l'attribution de la bourse « Euskaraz Lan Egin / Travailler en basque » et du montant alloué.

## **Article 10. Règlement des litiges**

En cas de litige dans l'application du présent règlement, seul le Tribunal administratif de Pau sera compétent

Batzordeak, honako irizpideen arabera aztertuko ditu kandidatuen dosierrak:

- hastapeneko euskara maila,
- proiektu profesional argi eta zehatza, euskara eta euskaraz irakasteko edo EEPko proiektu estrategikoan lehentasun gisa ekarriak diren beste alorretan lan egiteko.

Irakasle izan nahi duten lagunei dagokienez, jadanik Bordeleko akademian diardutenei emanen zaie lehentasuna.

Irakasle izan nahi eta ez direnen artean, lehentasuna emanen zaie jadanik EIKL ukan dutenei edo 1. mailako IHFL-eko (*Irakaskuntza, Hezkuntza eta Heziketako Lanbideak*) masterraren 1. urtea baliodun egin dutenei.

Beste proiektu profesional bat duten pertsoneri dagokienez, EEPko Proiektu estrategikoarekin zuzenean bat egiten duen proiektuari emanen zaio lehentasuna.

Dosierrak ikertu ondoan aukeratuak izanen diren hautagaiak elkarrizketa batera deituko dira, heien motibazioak aztertzeko.

Irakasle izan nahi eta ez direnen kasuan, epaimahaiak bereziki aztertuko ditu hautagaien hizkuntza maila (frantsesez eta euskaraz), irakasle izateko duten interesa eta irakaskuntzan izan duten/dituzten esperientzia(k).

EEPk, hautatuak izan diren kandidatu bakoitzari jakinaraziko dio «Euskaraz Lan Egin/Travailler en basque» dispositiboan parte hartuko duela eta zenbateko dirulaguntza emanen zaion.

## **10. artikulua. Auzien konponketa**

Paueko Auzitegi Administratiboak baizik ez lituzke trenkatuko hitzarmen hau betetzeko orduan gerta litezkeen auziak.